

GOGOETARI LEIHO

BIDEZIDORRAK


Erdara harturik maisu (I)

RAKURRI EGIN ditut Miren Lourdes Oñederrak (EGUNKARIA, 1991-I-15) Markuletari fonemaren palatalizazioaz egindako ohar baliosak. Arazoak, nire ustez, askok uste baino garrantzi handiagoa du, eta merezi du zerbait gehiago esatea.

Oñederrak zuhurki aipatzen dituen fonetika / fonologi xehetasunak alde batera utzirik, problema, funtsean, honetan datza. Alde batetik Markuletak bere kezka agertzen du, gaurko euskaldun askok mutila, langilea, zigilua, herdoila edo txotxongiloa moduko hitzak, mutiua, langiyea, zigiyua, herdoiya eta txotxongiyo gisa ebakitzen dituztelako, eredutuz proposatzen zaien mutila, langillea, zigilua, herdoilla eta txotxongilua ezin imitatuz. Berak, oso oker ez banago, erdaratik heldu den yeismo hori baztertzeko, euskara standardean palatalizatorik gabeko ebakera gomendatzea proposatzen du, hau da, idazten den bezalaxe esatea: mutila (eta ez mutilla) alegia.

Oñederrak, ordea, il + bokala taldeez gainera, badirela beste kasu batzu ere gogoratzeko dio (Mallabia, Ellakuria, silla...) bai eta zenbait lekutako bustidura adierazkorra ere (labur / llabur, polita / pollita, Pello, hori / hollu, gorri / gollu), eta erregela horrek ez lukeela hor baliorik izango. Ondorioz, Oñederrak, biziki sentiturik ere, euskaran agertzen hasi zaigun yeismoa geldiezineko fenomeno normalizat jotzen du, 'gazteagoen' euskara bizi eta eboluzionatua goaren ezaugarri soiltzat beharrekoa, inola ere gaitzetsi gabe.

Nik neuk, ezinbestez, kezka aski larriak azaldu behar ditut planteamendu horren aurrean. Ondoe-gi dakit edozein hizkuntza, berez, beti eta eten-gabeki eboluzioan ari den izakia dela, baina eboluzio hori bultzatzen duten eragin eta arrazoi guztiak ez dira beti ontzat hartzeak izaten. Izan ere, hizkuntza batek izaten dituen eraginak ez



zaizkigu inoiz bere hedadura osoan agertzen. Fenomeno batzu holako maila sozial konkretuetan gertatzen dira, beste batzu geografiko eremu berezietan, eta gizarteak berak erabakitzen du (agintarien bidez, prestigioz etab.) fenomeno horietatik zeintzu onartu eta komunikabideetara pasa, eta zeintzu ez.

Espanian, irakaskuntzak eta komunikabideek, adibidez, ontzat emana dute -ado bukaerak (estado, soldado, mandado...) -ao gisa ebakitzea (estao, soldao, mandao), ez ordea -ido (perdido, comido...) -jo esatea (comfío, perfío), fenomeno hori Andalusiako eremu askotan erabat normala

eta zabaldua izan arren. Beste horrenbeste gertatzen da (penintsulaz ari naiz) c / z bereizkuntzaz. Irrati-telebistetako mintzatzaileek, edo filmeen esatariek, kasu, ongi bereizten dute beti casa / caza, coser / cocer modukoak. Ordea, il eta y arteko bereizkuntzari ez zaio horrelako jaramonik egiten jadanik.

Euskarari dagokionez ere, antzeko ereduak jarri izan dira, denboran zehar aldatuak. Gauza jakina denez, eta nolabait Mogel-Sabindar eskolari jarraikiz, garai batetan zenbait fonetismo, anitz tokitan oraindik ere erabat ohizko eta arrunt direnak, eredu izan ziren, mendija (edo mendiya), etxia, astua, buruba, mutila, oiña, polita, itto, inddarra, ixarra, gixatsa, itxasoa, ekatxa. Geroago, ordea, horietako askok izan zezaketen goxotasun edo txikitetasun-kutsua zela eta, literatur hizkuntzatik baztertu ziren, -il + bokala eta -in + bokala taldeez salbuespenaz, hor il eta ñ-ren ebakera palatalak, tazituki bederen, onartuz.

Horixe izan da, gainera, irakaskuntzan aurrera eramandako eredu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar kasu horietako palatalizazio 'automatiko' hori, adierazkorra ez den aldetik inolako balio bereizgarria ez izateaz gainera, ez dela Euskal Herri osoan gertatzen, eta askotxo gara Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean mutila, gaztaina, baina, langile edo iluna Il eta ñ gabe diogunok. Hitz askotan gainera, ia-ia ez da inon palatalizaziorik egiten, adibidez: atxilotu, mailegua, pilota, ibili, erabili, hilik, frankilena, soilik, erailea, ekilorea, historialaria, ilea, kili-kili, kontseilua, kamioilaria, liluratu, ipini, inurri, minik ez... Hitz mailegatu berrienetan, bestealde, ez dirudi hori joera nagusia denik ere: misilekin militar jubilatuko lehenbailhehen mobilizatuko bailirateke, estiloa, pistiloa, kilometroa, alkilatua; Palestina, bitaminak, kartulina, penizilina, morfina, aspirina, kokaina, inesiboa, inaktiboa, beduinoa, pinguiñoa, asasinoo. Berlinera, Pekinera, Hussein-ek...

XABIER KINTANA

Israel: kibbutz-a

LIBE AGIRRE

Mende honen hasieran, judutarrek Israelgo lurterarantz joaten hasi ziranean, komunidade txikietan ezarri ziren; honeetan danak lan egin eta emaitza danen artean banatzen ziren. Horrela sortu zan Israel-en Kibbutz-a, gizarte eta lan antolamendu bezala.

Kibbutz-in-ak beharrak eraginda sortu ziran. Ideologia jakin batek bultzatuta joan ziran, sionismo sozialistek, hain zuzen; baina behin aurrenekoak Palestinan izarri ziranean, bertako ingurugirora egokitu beharra izan eban.

Kibbutz-etako kideen bizibidearen arazoa konpondu behar izan eban. Jaiotzetik, Kibbutz-a, komuna izateaz gain, enpresa ere izan zan. Gaur egun, 116.000 lagun bizi diran 260 kibbutz-ak Israel-en sinbolo bihurtu dira kanpo munduarentzat.

Kibbutz-aren oinarria nekazaritza izan zan, eta ez konpetitiboa, gainera. Bertako kideek ez dabe norberaren jabeagorik, ezta soldatarik jasotzen ere. Euren lanaren truke beharizan guztiak Kibbutzak berak beteko deutesiez, esate baterako, etxebizitza, oporrak, sendagintza, hezkuntza eta abar. Erabagiak hartu eta aurrekontua onartzekotan danak parte hartuko dabe. Baina, Kibbutzetako ekonomia ez da bakarrik nekazaritza oinarritzen. Diruzarerra ederra ekartzen dauan abeltzartza ustiaketa ugari ere badago.

Europa, Estatu Batu eta Zelanda Barriko esne-produkzio zentru garrantzitsuenak larre-lekuetan badagoz ere, kontutan izan beharrekoa da Israelen produkzio hau egoera tropikal eta semi-lehorrean lortzen dala. Israeldarrak, aukeraketa biologiko egoki, eta batipat konzentratutan oinarriturik elikaduraz lortu dabe arazo honek gainditzea, sekulako produkzio izatera helduz. Behi bakoitzeko urteko 9.000 litro jasotzea lortu dabe.

Kibbutzek, oinarrian badu abantaila garbi bat, beronen antolamendua. Jabeago pribatu ezean oinarrituta dago, eta hauxe da iharduera enpresarialak sortzeko egoerarik egokiena. Sortu zanean batipat nekazaritza sustraitzen zan ekonomia baeban ere, kibbutza ez da ia gaur egun nekazaritza enpresa hutsa. Nahi ta nahiezko industrializate prozesuak Kibbutzaren helburu eta joka-moldeak asko aldatu ditu.

Hainbat erabaki hartu beharko dabez datozen urteotan, eta erabaki honeen arabera, Israeldar gizartearen bilakaeraren ardatz bihurtu ahal izango dira.

Etorkizunari begira, Judutar eta Arabiarren arteko bakea lortzea ezin bestekoa ikusten da, gudu horretan alperrik galtzen diran hainbat baliabide funtsezkoak izango litzateke eta, israeldar gizartearen normalizazioan. Bi herrien eskubideak zainduko dituen bakea behar beharrekoo litzateke beraz.

ORAIN HOGEITAZORTZI URTE



'Larresoro'ekin solasean

Zeruko Argia astekarlan 'Larresoro' elkarrizketatu izan zen. Ez da elkarrizketan zehar bere benetako izenrik ageri hala ere argazkiak ez du engainatzen. Gaur egun ere, ziurrenik ezagunago da 'Txillardegia' ezinez, bere abizenaz baino.

Euskalduntze eta alfabetatzeaz mintzatzen da 'Larresoro' beste kontu batzuren artean. «Eskola, administrazioa, irratia, telebista, dendak, lantegiak, unibertsitatea, osoki euskaraz izatea guztiz eta hertsiki beharrezkoa baita euskara bizirik atxikitze. Bestela kitto da, eta azkar. Dena ala batera ez. XX. mendean bizi gera, ez Harri Haroan edo Tasmania urrun batetan. Ala Bilboko Gran Via guztia euskaraz ari ikusiko dugu, ala Errigoitiako azken tontoretan baserriarrak berak erdaraz

entzungo ditugu». Euskara batuaren inguruan galdetu eta «Ikastolak eta euskara batua. Hizkuntzaren maila soilaz ari naiz, jakina. Ikastolen kontra eta euskara batuaren kontra daudenak euskararen etsai zitallak baizik ez dira. Berdin zait noren izarean datozen» erantzuten du 'Larresoro'k.

'Hizkuntza eta pentsaera' liburua argitaratu eman berri zuen 'Larresoro'k. «Euskararen balioa zertan datzan argitu nahi izna dut estrukturalismoaren argitan. Uste dudanez, gizonaren taxu-mena, estruktura-mena, sakonagoa da produkzio-beharretatik heldu omen zaitzen mintzatu beharra baino. Eta egari zor zaiona azaldu dut, 'moda'ko iritzi batzuen kontra bada ere».